ERROTA ZAHAR MAITEA

BAZTANGO ERROTAK

Xartolako errota

TESTU ETA ARGAZKIAK

Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

Errota zahar maitea
uraren ertzean,
uraren ertzean da
basati beltzean.
Negar egiten dezu
aleak txetzean.
Ni ere triste nabil
zutaz oroitzean.

Letra: J. M. Lekuona
Musika: X. Lete/L. Iriondo

Errota zahar maitea abestian jasotzen diren hitzek, ezin hobeto islatzen dute Baztango lurretan barreiaturik zeuden erroten ispiritua. Ezaguna da ur-errotek edo eiherek (Iparraldean) edo boluek (Bizkaian), Euskal Herriaren historian izan duten garrantzia, baserrietan jasotzen zen artoa ehotzeko lantegiak izan baitziren urte askoan. Bizimodu zehatz baten lekuko izan diren eraikin hauetako gehienak desagertu, berriztatu edota landetxe gisa berregokitu dituzte. Gutxi dira garai bateko bizimodu horren ezaugarriak erakusten dutenak, artoa era tradizionalean ehotu eta eskuratzen duten irina erabiliz,arto-opil edo talo goxoak egiten dituztenak hain zuzen ere. Garai batean familientzat elikagai zena, gaur egun herri eta hirietako feria edo festetan dastatzeko gutizia bilakatu da. Segidan idatzitako ibilaldiak burutuz gero, Baztango bost errota ezagutzeko parada izango dugu. Denak berriztatuta dauden arren, soilik bietan (Amaiur eta Etxaideko errotak) ikus daiteke ur-erroten funtzionamendua. Bide batez, kokatuta dauden inguruaz gozatzen dugun bitartean, historiaren zenbait pasarte gogora ekarriko ditugu.

XARTOLA ETA AMAIURKO ERROTAK

ZAILTASUNA: Erraza
LUZERA: 13 km
IRAUPENA: 3 ordu 30'
DESNIBELA: 420 m

Arizkungo herriko plazatik abiatuko gara PR-NA 4aren bide-seinale zuri eta horiak jarraituz. NA-2061 errepidetik, Elizondorako norabidean, herritik aterako gara tarte bat Done Jakue bi-

dean barna beteko dugularik. Laster, errepidea utzi eta eskuinerantz joko dugu kanposantuko asfaltozko bidetik. Ezker aldetik jaitsi eta, basoa eta belardia mugatzen duen bidetik, berriro errepidera aterako gara, hau zeharkatu eta zuzen segituko dugu, Baztan erreka harrizko zubi eder batetik gainditutz. Porlanezko bidetik ehunen bat metro aurrerago, zerrategi bat eskuinean utzi eta Elizantzenea landetxera iritsiko gara. Mugertza muinoa inguratuz, zelaigune eder batean kokaturik dagoen Apaioa auzora helduko gara. Herri arkitekturaren adierazgarri diren etxe bikainak ikusi eta, San Frantzisko ermita eta iturria atzean utziz, eskuinera jo eta, harlauzazko bidexka batetik magalez magal eta erreka zokoetan barna, Azpilkuetara helduko gara. Bertan, San Frantzisko Xabierkoaren amaren sendiaren jauregia dago.

San Andres eliza eta frontoia atzean utzi eta, ezkerretik jaitsiko gara Errotaldeko paraje aldera. Berehala, Xartolako erroten ondora helduko gara. Bi errota daude, biak berdinak, bata bestearen ondoan eta orain dela gutxi zaharberrituak. Ura Artzubiko errekatik hartzen dute eta biek konpartitzen dute presa eta ubide bera. Gune hidrauliko ikusgarri eta interesgarria bisitatu eta gero, aurrera segituko dugu bide zabalean zehar. Arribiltoa auzora doan bidea eskuinean utzi eta porlanezko bidetik segituko dugu. Harizti, borda eta Baztangoizako ikuspegi ederraz gozatuz, ondo balizatutako bideak Zuaztoi auzora eramango gaitu. Porlanezko bide zelaitik kilometro eskas bat behar izango dugu Urrasun auzoan dagoen Santiagoko ermitaren ondora ailegatzeko. Hona iristean, Amaiur arte bidelagun izango ditugun Done Jakue bideko gezi horiak PRaren marka zuri eta horiekin tartekatuko dira.

Ura Artzubiko errekatik hartzen dute eta biek konpartitzen dute presa eta ubide bera



Amaiurko errota

Dagoeneko begi bistan izango ditugu Amaiurko herrigunea eta bere gainean nabarmentzen diren gazteluaren aurriak. Galtzada zaharraren arrastoek erakusten digute inguru honek izan zuen garrantzia, Iruñea eta Baiona elkartzen zituen bide nagusia baitzen, XIX. mendea arte Baiona Nafarroako portua izan zen eta. N-121 B errepidera aterako gara eta herriko beheko aldean eliza, errota, iturria eta gurutzea ikusiko ditugu. Hemen, Otsondotik datorren Done Jakue bide banatzen da: Urrasunera, orain arteko bidetik eta San Migel-Bozatera, gero itzulerako erabiliko duguna. Amaiurko errota, XVIII. mendean eraikitako errota dotorea, Baztanen aleak ehotzen jarraitzen duten azkenekotako errotarriak direla esan daiteke (Etxaideko errota ere martxan dago). Beste errota batzuk bezala, hau ere zaharberritu eta landetxe bihurtu dute. Artxiboko iturrien arabera, 1280. urtean, Amaiurko errotak diru-saria ordaintzen omen zion Nafarroako Erresumari, beraz esan daiteke aspaldidanik izan dela errota Amaiurren. Gaur egungoa XVIII. mendekoa da, nahiz eta 1897ko data jarri eraikinean. Hamabost urtez itxita egon eta gero, eraikinaren jabetza herritarren (portzionistak) esku geratu zen eta gerora, Baztango udalaren esku geratu zen errota berritzearen truke.

Herriko karrika nagusian murgilduko gara ezker-eskuin altxatzen diren etxe ederrei so. Herriko goi aldera iristean ermitaren ezker aldetik Amaiurko gaztelurantz zuzentzen den bide zabala igoko dugu. Gora iristean, ikuspegi ederraz gozatu eta gaztelu esanguratsu honen historia gogora ekarriko dugu. Hementxe bertan gertatu zen Nafarroako erreinuaren gertaera garrantzitsu bat. 1522an, Noaingo bataila galdu eta Nafarroako noble eta zaldun batzuk gaztelu honetan gotortu ziren Nafarroako independentziaren alde borrokan jarraitzeko. Gaztelauen armadak gaztelua setiatu eta kanoien indarrez txikitu eta gero, nafar gudariak errenditzera behartu zituzten. Mendeak geroago, Lauaxeta poetak idatzi zuen "*Amaiur gaztelu baltza*" olerkian bildu zuen euskaldunen pasadizo garrantzitsu honen inguruan. Hona hemen hasierakoa: "*Amayur gaztelu baltz ori / -berreun gudari oso sumin- / Zaintzen zaituben zaldun onak / Naparra-aldez egin dabe zin*".

Gure historiaren pasarte garrantzitsu honi errepaso laburra egin ondoren, Arizkunerantz abiatuko gara. Gaztelua atzean utzi, herria zeharkatu eta, sarreran ezkerrerantz hartuko dugu bide-seinaleak erakusten diguten bidean barrena. Kisuko bordaren ondotik pasa eta bide nabarmenetik San Migel ermitaren ondora iritsiko gara. Bozate auzora doan bidea utzi eta berehala iritsiko gara Erdi Aroko eraikuntza sendoa den Urtsuako Jauregi-dorrearen eta Santa Ana ermitaren ondora. Aurrerago Lamiarrita jauregiaren ondotik pasa, Baztan erreka zeharkatu eta Arizkun herrian goi aldetik sartuko gara. Karrika nagusia zeharkatuko dugu eta San Juan eliza eta Klarisen komentua ikusiko ditugu abiapuntura iritsi aurretik, Arizkungo Herriko Plazara hain zuzen ere.

ERROTA BERRI ETA ETXAIDEKO ERROTAK

ZAILTASUNA: Erraza
LUZERA: 6,6 km
IRAUPENA: 2 ordu 15'
DESNIBELA: 385 m

Elbete eta Elizondo herriak elkarren ondoan daude eta Baztan ibaiak banatzen ditu. Santa Kruz eliza eta XVII. mendeko Jarola eta Askola jauregiak dira bere eraikinik nabarmenenak. Ibilaldi honetan, Elbete herritik gertu dagoen Autrin tontorrera igoko gara aurrez, oraindik zutik dirauten Baztango bi errota ezagutzeko aukera izango dugularik: Errota Berri eta Etxaideko errotak hain zuzen ere.

Baztan ibaiaren paraleloan eta etxe ederren artean hedatzen den asfaltozko errepidetik abiatuko gara eta ibaia zeharkatzeko aurkituko dugun zubia gurutzatu eta gero, Errota Berri errotaren ondora helduko gara. Elbeteko errota izenez ere ezaguna da. Beartzun errekaren ondoan altxatzen den errota zahar hau, egun etxe bezala egokituta dago. Gorago dagoen presa, Ingurumen eta Landa Garapen Departamentuak botatzeko agindua eman zuen, baina Elbeteko herritarrek mantentzeko egin zuten borrokaren ondorioz, bere horretan uztea erabaki zen. Errotari bizkarra eman, zubi xume bat gurutzatu eta errekaren ondotik marrazten den xendatik aurrera egingo dugu.

Etxaideko errota

XIX. mendean eraiki zuten ur-errota honetan era tradizionalean ehotzen da artoa

Errepidera ateratzean, bertatik ehunen bat metro bete eta berehala iritsiko gara Etxaideko errotaren ondora. Calistro izenez ere ezaguna zen. Zubia igaro eta errota eder honetaz gozatzeko aukera izango dugu. Garai batean Baztanen zeuden erroten artean, zaharrenetakoa dugu hau. XIX. mendean eraiki zuten eta 2003an eraberritu eta gero, martxan jarri zuten. Ur-errota honetan era tradizionalean ehotzen da artoa eta lortzen duten irina erabiliz, arto-opil ederrak egiten dituzte, taloak hain zuzen ere. Garai batean oinarrizko elikagaia zena, gaur egun feria eta festetan dastatzeko aukera izaten da. Errota eta bere funtzionamendua ezagutzeko ere aukera dago.

Errotaren ondotik hedatzen den pista zabaletik Basabar aldera doana hartuko dugu eta, bertatik berrehunen bat metro bete ondoren, ezkerretik marrazten den xenda hartuko dugu. Uda partean, garo altuak ikusgai bihurtzen du bidea, baina kilometro erdi bete eta gero, garbitu eta erraztu egiten du ibilera. Baso mistoa zeharkatu eta, aldapa bizi batek Intzuriko lepora eramango gaitu. Arnasa berreskuratu eta, aurrez aurre ikusiko dugun aldapa pikoari aurre egingo diogu nabarmena den xendan murgilduz. Tontorrera heldu baino lehen, alanbrezko hesiak pasoa eragotziko digu eta, ondotik metro batzuk bete eta gero, hau gainditu eta Autringo tontorrera igoko gara. Gerra Zibilean eraikitako bunkerretik (presoek eta errepresaliatuek eraikitakoa ziurrenik) Baztango ikuspegi ederra eta zabala izango dugu gozagai.

Igotako bidetik atzera egingo dugu eta, Intzuriko lepora jaistean, metalezko langa pasa eta eskuinetik, Oketa muinoaren magaletik ateratzen den pista zabalean zehar jaisten hasiko gara. Pista, borda baten aurrien ondoan amaitzen da eta aurrera jarraitzeko izango dugun erreferentzia bakarra, ataka funtzioa betetzen duen latorrizko xafla batean ikusiko ditugun seinale zurigorriak izango dira. Xaflaren beste aldera pasa, xendatik aurrera egin eta berehala basoan murgilduko gara. Bertatik ateratzean, garo-lekua zeharkatuko dugu (udan oso altua) maldan behera altuera erraz galduz. Beste baso batean sartu eta Malkor inguruan, bide garbiak porlanezko pistara eramango gaitu. Pistatik Baztan ibaiaren on dora jaitsiko gara eta hau gurutzatu ostean, abiapuntura itzuliko gara.





INFERNUKO ERROTA

ZAILTASUNA: Erraza
LUZERA: 14 km
IRAUPENA: 3 ordu 30'
DESNIBELA: 421 m

Baztan eta Etxalar artean, Orabidea (Lekaroz) eta Tximista auzoen artean, Infernuko errekaren urek bidea zabaltzen dute pagoz betetako mendi magaletako haran estuetan. Orizki lepotik aterata, inguruko biztanleek artoa ehotzeko pasa den mende arte erabili ohi zuten izen bereko errota bisitatuko dugu. Horretarako, lehenik Etxalar herria atzean utzi eta Zugarramurdirako bide zaharretik hiru kilometro pasatxo, Orizki lepora igoko gara kotxez eta bertan dagoen antena baten ondoko zabaldian aparkatuko dugu, bunker baten ondoan hain zuzen ere.

Errepidea gurutzatu eta, aurrez aurre dugun lehen malda txikiari aurre egingo diogu. Hasieran garo artean eta gero pagadian marrazten den xendatik lurrezko pista zabal batera aterako gara. Maldan gora segituko dugu Gaineko Harrietako lepora heldu bitarte. Gure ezkerrean, Madariko gaina eta Bagobilletako muinoak utzita, bide nabarmenetik aurrera egingo dugu. Berehala helduko gara Higer lurmuturra eta Mediterraneo itsasoa lotzen duen GR 11aren bide seinale zuri-gorrien ondora. Balizajea segituz, altuera hartu eta Atxuriako silueta nahastezina ikusiko dugu. Zentinelako ingurune megalitikora zuzentzen den SL-aren markak ezkerrera utzi eta, laster jaitsiko gara Zugarramurdiraino luzatzen den errepidearen ondora. Hau gurutzatu eta aurrean dugun pista zabaletik erraz ibiliko gara. Legateko gurutzea urrutian dugularik, Kaskoaundiko magaletik Also leporaino jaitsiko gara aldapa bizian altuera erraz galduz. Bidegurutze honetan, GR 11 utzi eta eskuineko bidea aukeratuko dugu maldan behera Burrarteko bordaraino jaitsiz.

> Errota martxan jartzeko ez zuten ubiderik erabiltzen eta ur-jauziaren indarraz baliatzen ziren

Pistan zehar jarraituko dugu, baina laster, pago baten ondoan, eskuinetik ateratzen den zidor nabarmena aukeratuko dugu. Garo artean eta tarteka pago gutxi batzuen ondotik pasaz, bide zahar honek Lizardiko bordaren lurretara eramango gaitu eta, bere alanbrezko hesiaren paraleloan ibiliz, berriro pistara aterako gara. Metro batzuk bertatik bete eta, berriro eskuin aldetik hedatzen den bidezidorra aukeratuko dugu. Altuera galtzen goazen heinean, erreken uren murmurioa gertuago entzungo dugu eta konturatu orduko, Etxebertzeko borda eta Infernuko errota lotzen dituen bidera jaitsiko gara. Ezkerraldera hartuz gero, amuarrainen haztegi eta pilotaleku txiki bat duen jatetxera iritsiko gara eta, eskuin aldetik jarraituz, berriz, basoaren itzalean ezkutatzen den errota zaharraren ondora.

Errota Berri errota

Baztango ipar-ekialdean, Bertizeko lurrekin mugan jaiotzen den Infernuko errekaren gainean eskegita dagoen egurrezko errota honetara, artoa ehotzea eraman ohi zuten inguruko biztanleek. Lan honetaz gain, antzina, haran estu hauetara ganadua bazkatzera ekartzen zen eta baserritarrek ikatza egiteaz gain, etxerako egurra era bertatik hartzen zuten. Errota martxan jartzeko ez zuten ubiderik erabiltzen eta ur-jauziaren indarraz baliatzen ziren gurpil hidraulikoa mugitzeko. Bere jatorria ezezaguna bada ere, uste da XVII. mendean funtzionatzen zuela, aurkitu zutenean, harri pare bat eta larruzko estalkiaz osaturik zegoen eta gerora, harriz eta egurrez berregin zen. XIX. mendean frantsesek erre zuten arte erabili zuten eta gerora, iristeko zuen zailtasunengatik karlistek babesleku gisa erabili zuten.

Argazkiak atera eta etorritako bidetik metro batzuk atzera egingo dugu, SL Na 13aren seinale zuri eta berdeak aurkitu arte. Etxebertzeko bordara doan bidea utzi eta ezkerretik maldan gora egingo dugu. Abiapuntura itzultzeko 5 kilometro beteko ditugu, Baztango bordaren ondotik pasa lehenik eta gero pagadian murgiltzen den pista zabala jarraituko dugu.

BAZTANGO ERROTAK

Erreka txikien bazterretan eraikita, XX. mendearen hasieran, Lekarozko kolegioko kaputxino izandako Vidal Perez de Villarreal monjeak (1929-2007), Baztanen 29 errota katalogatu zituen, baina geroago beste bat gehitu zuen, Kisuko errotarena hain zuzen ere. Zalantzarik ez dago errotek funtzio garrantzitsua bete dutela gure herrietako bizimodu eta harremanetan. Hasieran erregerenak ziren errotak, gerora, jauntxoen esku egon ziren baina, XVIII. eta XIX. mendean altxatutako errota gehienak pribatuak bihurtu ziren, gertu bizi ziren "portzionisten" edota familia batzuen esku geratu zirelarik. Baztango familia boteretsuen ondasunetan, irin-errotek leku garrantzitsua betetzen zuten. Bizilagunak errege-zerga edo petxetatik salbu egon arren, eta kaparetasun kolektiboa izanik ere, ia herri guztietan noblezia-tituludun eta ondasun ekonomiko gehiago zuten familia pribilegiatuak izan ziren erroten sustatzaile nagusienak. Erroten jardunaz gain, hargintza eta erementaritza ere familia horien esku zeuden.

Eraikin hauetan ez zen errotariarentzat etxebizitzarik eta soilik, txoko bat izaten zuen bera jatorduak egin eta atsedena hartzeko. Errotariaren lanak ez zuen etenik, ura egunez zein gauez aprobetxatu behar zuten, jasotzen zuen ordainsaria xehetutako ale kopuruaren baitan zegoen eta. Errota hauetan, batik bat garagarra edo artoa xehetzen zuten, aziendei bazka emateko edota taloak egiteko. 1976an, mende hasieran zenbatutako 29 errotetatik, bakarrik 8 geratzen ziren martxan eta gaur egun, berriz, Amaiur eta Etxaideko errotak bakarrik.

Errota zahar maitea ez dela iraganeko kontua diote batzuk, baina errealitatea bestelako dela uste dut. Zenbait errota biziberritzeko ahalegina egin den arren, askoz gehiago dira erreken murmurioan betirako lo geratu direnak.

...ni ere triste nabil zutaz oroitzean.

Amaiurko errota

Infernuko errota